

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2271

772/2025 EBAZPENA, maiatzaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen baitira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko otsaileko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkor baten deialdia egin zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoak lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera. Ebazpen hori 2021eko azaroaren 8ko 221. EHAA-n argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 14ko 111/2025 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2025eko otsaileko destinoen eskaintza argitaratu zen, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoria / lanpostu funtzionalerako (2025eko otsailaren 28ko EHAA, 41. zk.).

Apirilaren 14ko 391/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 5eko 425/2025 Ebazpenaren bidez zuzendutakoa, argitaratu egin ziren onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, eta lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2025eko otsaileko zikloan deitutako destinoak behin-behineko esleitu ziren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoria / lanpostu funtzionaletarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Mediko kategoriaren / lanpostu funtzionalaren destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez eta lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran, 2025eko otsaileko Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Mediko kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen behin betiko zerrenda. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 14ko 111/2025 Ebazpenaren daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honen II. eranskinaren bidez eta baztertzeko arrazoiak azalduta, 2025eko otsaileko Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Mediko kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren baztertutako behin betiko zerrenda. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 14ko 111/2025 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.– Argitaratzea, ebazpen honen III. eranskinaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 14ko 111/2025 Ebazpenaren eranskinen eskaintako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira izangaiek, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan, esleipenduna Osakidetza zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3. apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, hori konputatzeko okupatzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipendun ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetu da EHAAren destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean behin-behineko atxikipenean badago edo kargua-utzi eta hurrengo egunean zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren kasuetan.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiko 9.8 oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAren argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko maiatzaren 27a, asteartea

I. ERANSKINA
 111/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA
 ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA
 KATEGORIA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
 LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***5199**	Gabilondo Cuellar, Andrea	76,3421
2	***0172**	Anguiano Jimenez, Juan Bosco	75,0000
3	***6849**	Orgaz Barnier, Pablo	60,0070
4	***7752**	Landa Garate, Ana Isabel	58,6719
5	***8229**	Larrañaga Rementeria, Lorea	58,3385
6	***9257**	Muzquiz Jimenez, Alvaro	57,5050
7	***0028**	Martin Otaño, Leire	57,5050
8	***8269**	Ibarburu Blanco, Elisa	55,8380
9	***0235**	Rodriguez Garcia, Yoane	51,8372

2025eko maiatzaren 27a, astearta

II. ERANSKINA
111/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA
BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDIA
KATEGORIA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA

NAN	Izen-Abizenak	Baztertzeko arrazoia
***9140**	Gutierrez Antuñano, Marina Lorea	Lehiaketan atzera egin du

2025eko maiatzaren 27a, asteartea

III. ERANSKINA
11/11/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
LANPOSTU FUNTZIONALAK: FAKULTATIBO ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***5199**	Gabilondo Cuellar, Andrea	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Donostia-Amarako OMZ-Donostia/San Sebastián / Arreta - Helduak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2025-12-03
***0172**	Anguiano Jimenez, Juan Bosco	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Kom. -Amb. Arreta - Eguneko Arreta-Bitarteko egiturak / Algotako OMZ-Getxo / Algotako EO-Getxo / Areetako Eguneko Ospitalea-Getxo / Erandioko Eguneko Ospitalea-Erandio / Arreta - Helduak-OMU helduak/Eguneko arreta-OMU helduak/Eguneko arreta / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2025-12-03
***6849**	Orgaz Barnier, Pablo	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Julian Ajuiragerra OMZ-Bilbao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7752**	Landa Garate, Ana Isabel	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Irungo OMZ-Irun / Arreta - Helduak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2013-12-03
***8229**	Larrañaga Rementería, Lorea	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Eixaniz Suhiltzailearen OMZ-Bilbao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2013-12-03
***9257**	Muzquiz Jimenez, Alvaro	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Beasaingo OMZ-Beasain / Arreta - Helduak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak / Adikzioak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2008-06-01